

Miaxiria



aranoko aldizkaria

2018ko
abendua

Maisuen

bizileku izatetik
herrigintza eta kultur
topaleku izatera

Guifi.net etorkizuneko internet Aranon
Emakume baserritarrei eskainitako erakusketa
Euskaraldia - Aranoko hots ahaztuak
Arano iruditan - **Erlea**, Jaungoikoaren hurrengoa ote?

**zenbaki
honetan**

Gurekin harremanetan jartzeko:
laga@iparmank.eus

Diseinu eta maketazioa:
astidiseinua.com

Testuak: **Arantxa Ansa, Ainhoa Ansa, Maider Ansa, Unai Gorrotxategi, Pello Huizi, Ohiana Kalparsoro, Lourdes Legarreta, Jose Inazio Salaberria, Eneritz Salaberria, Paula Etxeberria eta Uxue Rodriguez.**

Argazkiak: **Arantxa Ansa, Ainhoa Ansa, Begoña Ansa, Ohiana Kalparsoro, Lourdes Legarreta, Ekaitz Saez, Jose Inazio Salaberria eta Maixa Becerra.**



L.G.: NA 2378-2016

**Aurkezpena**

3

**Zuen lanaren haritik...**

4-7

**Guifi.net: Etorkizuneko Internet Aranon**

8

**Euskaraldia**

9

**Lehengo eta oraingo aguazilak ezagutuz**

10

**Maisuenea**

11-13

**Arano, iruditan**

14-17

**Erlea, Jaungoikoaren hurrengoa ote?**

18-19

**Aranoko hots ahaztuak II**

20-23

**Aranori buruz esaten direnak tesi batean**

24

**Errezetak**

25

**Denbora-pasak**

26

**Naturarekiko errespetua**

27

**Zer falta du Aranok?**

28





Dagoeneko MIAXIRIA aldizkariak 5. alea du kalean

Herriari begira jarri gara honetan ere, eta aurren izan du herriak ospakizunerako albiste gune pozgarri bat: Maisuenea aretoaren inaugurazioa. Aranoar guztientzat topaleku eta bilgune izateko asmoz sortu da, eta guztien ideiek, sormen-lanek, bisitek dute lekua bertan. Eta horrela erakutsi du orain arteko ibilbidean. Izan ere, hainbat ekitaldi antolatuta dira atek ireki dituenetik: Jubiloteka dela, haurrentzat eskulanak direla, musika emanaldiak, hitzaldiak, berendua, ... Herriak herriarentzat sortutako areto bikaina da Maisuenea. Maisu maistren bizileku izatetik kultur sormen eta beharretara egokitutako topaleku izatera pasa da.

Herritarrek izaten dute lekua maiz MIAXIRIAN, eta aurtengoan bereziki emakume baserritarrek hartu dute toki hori. Izan ere, Maisuenean, erakusketa eder bat montatu du Aranok, auzolanean. Bertan parte hartu dugunok, bakoitzak bere txikitasunetik eta intimitatetik, bere amak, amonak,

birramonak, ahizpak... etxekoei, familiari eta herriari egindako ekarpena agertu nahi izan dugu. *"Zuen lanaren haritik..."* deitutako erakusketa, atzera bai, baina baita aurrera begirako aitortza bat ere izan da.

Herrian sortu berri den proiektu bati buruzko azalpenak ere jaso ditugu, *Guifi.net* izeneko sarea. Guifi.net telekomunikazio azpiegitura da, Internet eta bestelako zerbitzuak eskuratzeko balio duena. Normalean Interneten inguruan hitz egiten dugu, baina beste zerbitzu asko sortu ditzakegu sare honen gainean: Herriarrian fitxategiak konpartitzeko zerbitzuak, liburutegi digital zerbitzua, herriarrian artean doako telefono deiak egiteko aukera... eta abar luze bat.

Euskaraldiari ere erreparatu diogu, Aranok ere bat egin zuelako azaroaren 23an hasitako ariketa sozial kolektiboarekin. Hamaika egun arrakastatsu izan ziren Euskal Herri osoan, eta bazter guztietara iritsi zen euskaraldiaren oihartzuna.

Bestelako kontuak ere jaso ditugu, esaterako, herriko aguazil izandakoari eta sartu berriari egindako elkarriketa. Edo Ekaitz Saezek ateratako argazki sorta ederra *"Arano iruditan"* atalean ikusiko duzuen. Baita Lourdes Legarretak egindako 2 plater goxoen errezetak ere.

Eta irudiez gain, testuak, hitzak eta hotsak lotu ditugu *"Aranoko hots ahaztuak"* izenburupean. Gure inguruan eta egunerokoan entzuten ditugun edota ia galduak ditugun hotsak eta soinuak bildu genituen duela 2 urteko aldizkari erreportaje batean, eta aurtengoan haren osagarri izanen den bigarren artikulua bat idartzi dugu, aurrekoari segida emanez.

Hauxe da 2018ko abenduan kaleratu dugun aldizkaria, beti bezala hainbat aranoarren kolaborazioari esker, eta aurren bereziki Jalki Kultur Elkartearen laguntzarekin. Eskerrik asko guztioi!

● **Euskara zerbitzua**

Zuen lanaren haritik...

Urriaren 15a “nekazal eremuko emakumearen nazioarteko eguna” dela jende gutxik jakingo du. In-guruko emakume baserritarrari galdetu eta, gutxik esango dute halako egunik inoiz ospatu dutenik. Baina aurten, Maisuenean, erakusketa eder bat montatu du Aranok, auzolanean. Bertan parte hartu dugunok, bakoitzak bere txikitasunetik eta intimitatetik, bere amak, amonak, birramonak, ahizpak... etxekoei, familiari eta herriari egindako ekarpena agertu nahi izan dugu. “Zuen lanaren haritik...” deituko erakusketa, atzera bai, baina baita aurrera begirako aitortza bat ere izan da.



Mairtzeneko txokoa.



Leontxon bordako lababoa, kinkia gainean eta trizikloa.



Larratxuriko Montseren “oroitzapen txokoa”.

Imajinatzen al duzue urik gabeko etxe bat gaur egun? Eta argirik gabekorik? Leontxon Bordatik erakusketan egon diren bi piezak hauxe nahi izan dute gogora ekarri. Eta oso ohikoa den zaintza lanetara lotu ditugu bi elementuak, nola ez! Izan ere, eskuak garbitzeko “lababo” honetan Xantik gogoan du bere amak, ur beroa eta toaila garbiak nola prestatzen zituen medikuarentzat. Norbait gaixorik zegoenean, medikuaren bisita izaten baitzen orduan etxean. Pentsatu orduan zenbat haur jaiotzen ziren etxeetan! Eta haur haien jolasak gogoan, Leontxon bordako umeez erabiliko zuten triziklo zahar bezain polita utzi ziguten erakusketarako.

Bestalde, argia egiteko “kinkia” ere ekarri dugu Leontxon bordatik, argirik gabe eta gauez sukalde txokoan egin beharko

ziren hainbeste lan gogoratzu. Ana Mari Ezkerran bordakoa bere amaz gogoratu zen hau ikustean, alkandora txuriak plantxa zahar haiekin plantxatzen nola aritzen zen, gainerako lanak bukatutakoan, goizaldeko 2:00etan askotan. Argirik gabe, eta plantxa zahar haiek alkandora zikintzen bazuten, zikindutakoa garbitzen, lehortzen... berriz aritu behar izaten zuen ama gaixoak sukaldeko ilunean. Zenbat baserrian errepikatuko zen argazki hau jai bezperetan?

Horregatik ekarri dituzte plantxa zaharrak horrenbeste etxetatik! Pieza politak dira, eta Larratxuritik, Bixargorritik, Perutxotik... hauek aukeratu dituzte erakusgai jartzeko.

Larratxuriko Montsek, gainera, oraindik ere jaboia berak egiten du, eta bazituen amajina bat pieza zahar, plantxa pare bat barne, bere ama eta amona gogora ekar-

tzen ziotenak. Hauetxek aukeratu genituen erakusketarako, eta bere oroitzapenak hauek izan ziren, euskaratuta, berak eskatu bezala, hemen jarriko ditudanak:

Sara eta Dora. Larratxuriko Montseren ama eta amona

Txikia nintzenean amarekin eta amonarekin errekarra joaten nintzen arropa garbitzera eta tintteekin tintatu ere egiten genituen. Bordatzen erakutsi zidaten, josten, punta eta gantxilloa egiten, eta baita sukaldean ere! Ogia egiten genuen, kafea ehotu eta pastak egin ere bai. Aurpegirako kremak eta jaboia egiten genituen, eta plantxatu berriz, ikatzezko plantxa hauekin egiten zuten.

Arropa garbitzeko ohola eta zepillua ere Ezkerran bordatik etorri ziren, gu-

re hainbat eta hainbat amona, erreka hotzean edo etxeko askan "lixiba" egiten aritzen zirenekoa. Etxean urik ez eta nola moldatu behar izaten zuten emakume nekazekin haiek etxeko guztien arropak eta jantziak garbitzeko!

Maria Esterrek ere haurren zaintzarekin lotutako tresna oso bereziak ekarri zituen. Hauetako bakoitzak istorio berezia du gainera!



Kutzarren sehaska.



Mairtzeneko biloben trona.

Batetik, Mairtzeneko lehendabiziko bilobari, Jexuxi, bere aitona Joxe Mari zenak, ofizioa ongi ezagutzen zuenez, egurrez eta zumitzez egindako trona ekarri zuen, haurrak helduek jaten duten mahaiera iristeko balio izaten duen aulkia altua.

Plazako oroigarria da bestea, Peio Bengoetxea pilotari famatua bataiatzeko jantzi zioten jantzia, hain zuzen ere.

Eta azkenik, Kontsejun bizitzen egon ziren Kutzarren sehaska ekarri zuen. Egurrezko sehaska txikia, Mari Ester bera ere Kontsejun zebilenean, eta Kutzarrak Aranotik joaterakoan, opari eman ziena.

Esan behar da, haurren zaintza lanak emakumeen gain izatea zela lehen ohikoena, eta kasu askotan baita gaur egun ere. Maria Ester bera herriko umetxo guztiei haur kantak kantatzen sumatuko dugu ahal duen guztietan! Odolean darma kantua...

Ezkerran bordako Ana Mari aipatu dugu lehen, baita arropa garbitzeko ohola eta zepilua ere. Baina bere amari bereziki lotutako objektuak eta oroitzapenak ekarriko ditugu jarraian:



Ezkerran bordako hari eta galtzerdiak.



Tomaxa zenaren saskia.

Ezkerran bordako Tomasa

Ama galtzerdi egiten abila zen. Aitaren eskuekin egindako haria hartuta, amak berak egindako galtzerdiak dira hauek, berak utzita bezala, eta hauekin batera, aita eta amaren argazki bat ere bai, Ezkerran bordako sukalde xaharrean. Ama, Tomaxa, eta Xauxarko Florentina, ondoan dauden saski hauek eta beste batzuk hartuta joaten ziren Donostiako ekonomatora erosketak egitera. Korreora oinez jaitsi eta, akordatzan naiz oraindik, nola joaten nintzen haien bila astoa hartuta, karga-karga eginda etortzen ziren-eta bi emakumeak!

Astoa eta asto gaineke kargaz ari garelara, Martitxikiko Martak bi "tamiz" edo galbahe txikitxo ekarri zituen, eta berehala lotu zituen bere amak Aranorekin zuen oroitzapen batekin:



Martitxikiko galbahiak.

Nere amak, Mertxek, beti kontatzen zizun, Gaztazko Bordako amona beheko errotara joaten zela irina ekartzera. A ze ibilerak egingo zituzten, askotan ume zaharren kargura ume txikiak utziz, eta Aranoko punta batetik, Surrotik, beste puntaraino (Latxeko errotaraino) astoa artoz kargatuta eraman eta irinarekin bueltan etortzeko. Dena, talo eginberria jateko izango bazuten!

Artoa aletzeko Mairtzeneko askakizun bat datorkit gogora, talorik izango bazen, irina nahita nahiezkua zelako, eta irina izateko, artoak zekartzan lanak aurretik egin beharko! eta Martitxikiren parean denez, Beheko Herrian bertan geldituko gara oraingoz: Mairtzenean. Horra Maitanek amaz eta amonaz idatzi zuena:



Artoa aletzeko mairtzeneko aulkia.

Mairtzeneko Malen eta Mari Jose

Oroitzapenak asko ditugu gure etxean, lanean, jolasean, sutondoko hizketaldietan... baina oraingoa hauek ekarri nahi izan ditugu:

Gure amona Malen, sukaldean gogoratzen dugu asko, beti izaten zuen eltzeren bat, zartariren bat su gainean. Garai bateko kafetera ekarri dugu beraz, izan ere, norbait etxera etortzen zenean, ez baitzen ezer falta izaten!

Ama, berriz, bai lehen eta baita orain ere, batean ez bada bestean, beti dabil zerbaitetan.

Txikitako oroitzapen hauek, oso gogoan ditugu oraindik, gure oheko maindire goxoak, neguko gorro eta bufandak, orratz haundi hauekin egiten zizkigun jertxeak... Ta nola ez, artua aletzen zuen bitartean kontu kontari aritzen ginen momentuak.

Eskerrik asko!!!




Leonaren txokoa, biltzaileen omenez.

Gaztazko bordako Leonak ere izaten zuen talo pala batekin artoa aletzeko egin-dako antzeko tramankulua, baina guk, hiru bilobok, ez genuen hau aukeratu bera oroitzeke. Gure amona oso errespetuzkoa zen lurrarekin, garai hartako baserri munduko guztiak bezala. Lurretik bizi ziren eta basoa txukun mantentzen zuten, bai fruituak eta baita egurra ere ematen zielako. Horregatik, kristalezko poto hauetan, kamamilua, menta belarra, iratze zimela, zotzak, gaztainak... jarri genituen "rekolektore" edo biltzaile eredugarriak zirelakoan. Mari Esterrek hau entzun zuenean, bere amak "gai-niharra" (gaiñiyarra) ekartzeko amak nola eskatzen zien gogoratu zuen, sua pizteko. Eta hauxe gure oroitzapena:

Gaztazko Bordako Leona

Gure amona aitatzean, txingurri bat bezain ttiki, baina aldi berean indartsu eta langilea etortzen zaigu gogorra. Sendabelarren jakintsu, mendiarekin eta aberekin beti errespetuzko, inguruaren orekaren azti... onttozale amorratua gure amona. Begirada zorrotzeko emakume ixila.. baina par gozokoa umorea ukitzean. Etxeko zaintzaile, hamaika lanen ekilibrista. Amona Leonaren erakutsiak gogoan...



Axunen txokoa, animalien zaintzari lotua.



Beltsoko bordako txokoa.

Eta Gastazko Bordatik Tereseneko Bordara salto batean gaudela esan daitekeenez, Axun ekarriko dugu orain gogora.

Tereseneko Bordako Axun

Etxeko azindak eta abereak zaintzen izugarritzko eskua zuen Axunek. Emakume jakintsua zen, batez ere, animalien eta baita pertsonen gaixotasunetaz errepartzeko zuen begiaz ari garela. Auzoan behia umatzeko zegoenean, esaterako, edozein garaitan joan gintezkeen bere atea jotzera, eta haren esana kontutan hartzen zen behia eta baita txekor jaio berria bizkortzeko lanetan. Etxean eta auzoan gogoan dugu bere eskua eta bere borondatea, beti laguntzeko prest izaten zen Axun.

Tripotxak egiteko ontzia, burruntzali xaharra, paxinkua eta esteak garbitzeko txotxa aukeratu zituen Beltsoko bordako Maixuxek, Beltsoko Bordako birramona omenduz.

Beltsoko Bordako Eleuteria

Ni hona ezkondu nintzenean, hauek hemen ziren, eta errespetu osoz gorde izan ditut, altxorrik baliotsuena izango balitz bezala. Eta ondoan mantalaurreako jarri dut! Horixe da edozertarako erabiltzen den jantzia! Zerbait biltzeko, garraiatzeko, lehortzeko, garbitzeko, zeror ez zikintzeko, baita umei mukiak kentzeko ere! Zertarako ez zuen balioko?

Beltsoko bordara ezkondu zen Maria Jesus, etxeko edozein lan eta inguruko zaintzan ikusiko dugu beti. Horregatik hauxe da gaztarekin eta ardi jeztearekin lotutako trasteen ondoan bere hiru alabok jarri duguna:

Artantxuko (Goizueta) edo Beltsoko Bordako Maixux

Ardiak jezten, mendiko borda eta etxeko sotoan, baldea esku batean eta bes-tean alkiya. Berak egiten dituen gaztak bezala, barrutik fina eta azala egina...

Bera da ezustekoetan heldulekua, zulo ilunak gainditzeko gure aurrean eraikitzen den zubia, eta bere sendotasunean, mendira inoiz eraman gabe utzi ezin den makila



Martzeneko Iraiaren txokoa bere amonari.

Suron jarraituko dugu, bertan den baserri handienetakoa izango denean. Izan ere, Martzeneko Bordako Roxaito omen-du nahi izan zuen Iraia bere bilobak oso modu hunkigarrian: Maisueneara etorri eta bere amonaz bi hitz idazteko eskatu nionean, kartulinatxo batean haxe idatzi zuen, eta bere piezak honela jarri zituen Martzeneko Bordako txokoa:



Iraiaren oroitzapenak.

Dudarik gabe, herriko emakume asko definitzen ditu berak aukeratutako ekonomikako gantxoarekin. Eta erleentzat erabiltzen den auspo moduko ketaztatzaile hau ere bere aitak MIAIRIARAKO egin duen erleen artikulua apaintzeko erabiltzea erabaki dugu, noski!

Aurora izan zen lehena bere ekarpena egiten, nahiz eta gaztak egiteko ohitura aipatu arte ez dugun hona ekarri. Berak gazura aipatzen du bere idatzian, eta erakusketaren esanahia aipatu genuenean, garbi izan zuen bere ama eta baserria uzartuko zituen bere oroitzapena zein izango zen. Gainera, baserrietan gaur egun ere oso erabilia den erremintak ekarri zituen bere txokoa apaintzeko, osin frexko eta guzti. Haxe Auroraren idatzia:



Paula Tximitxenekuaz Aurora.

Paula Tximitxenekua, nere ama

Nik oroitzen dut, berak bere gaixotasunagatik (bihotzekoa zeukan) ezin izaten zuen eta, ni bidaltzen ninduen osinak biltzera, gazta gazurarekin txerriei (2 izaten genituen) emateko. Itaiak (edo igitaiak) ordukoak dira, gutxi gorabehera 47 urte! A ze oroitzapenak!

AURORA

Herrian jarraituko dugu, Perutxoko Nagorek ekarri baitzuten, bere aitak gordeak zituen ikatzezko plantxa zahar bezain ederra, beste burnizko plantxa bat eta zeresan handia eman duen beste pieza hau:



Perutxoko "erabilera askoko" tresna.

Zertarako erabiliko zuten, galdera hau ahoan erabili du erakusketa ikustera gerturatu den guztiak. Ideia asko jaso ziren, baina bakoitzaren irudimena hegatzan uzteko moduko ariketa proposatzen duela



Bixargorriko Ohianaren piezak.

iruditzen zait. Ea nori bururatzen zaion erabilera burutsuena!

Bukatzeke, Perutxotik salto batean dagoen Bixargorrira joango naiz. Ohianak ez zituen Bixargorri aurkitu ekarri zituen tresnak, eta bigarren plano batean ere jarri nahi izan zituen, Aranokoak ez zirela esanez. Baina, ez bere piezak, ezta berak egindako lana erakusketa honetan ere; hauek ez dira bigarren planoan uztekoak! Berari esker egin du aurrera ideiak, eta bera ibili da tresnak atzera eta aurrera mugitzen, Maisuenearen gainerako ekin-tzek aurrera egin zezaten erakusketa bera oztopo izan gabe. Berak ireki zuen igande gehienetan erakusketa jendeak ikus zezan, eta zentzu honetan, berak, erakusketa honetan bere izebaren batidorak, plantxak, kafeterak eta balantzak bezainbesteko balioa duela (balio handia) aitortu behar diot esker hitz hauekin.

Plazer bat izan da nekazal eremuko emakumeen ahotsak eta oroitzapenak entzutea!

● Ainhoa Ansa

Guifi.net: Etorkizuneko Internet Aranon

Internet gero eta gauza gehiagotarako erabiltzen dugu. Telefono mugikorrek sakelako ordenagailu txiki direnetik, edozein leku eta testuingurutan konektatzen gara. Gure ingurukoekin komunikatzeko, ikasteko, lanerako, aisialdirako... Dagoeneko ezin dugu Internet gabeko etorkizunik irudikatu. Ala bai? Tira, Aranon behintzat batzuetan konplikatu egiten da hori irudikatzea. Internetera konektatzea ez da beste herri eta hirietan bezain erraza. Kobertura ez denean, konexio prezioa. Eta prezioa ez denean, abiadura, giga kopurua, konexio eteteak... Telekomunikazio enpresei ez zaie errentagarria egiten Arano bezalako eskualde menditsuetan dauden herrietan zerbitzu ona ematea. Eta horren ondorioz, desberdintasun teknologiko nabarmenak sortzen ditu beste herriekin alderatuz.

Honen aurrean alternatibak eraikitze bidea hartu dezakegu. Eta bide horrekin hasten da Guifi.net proiektua. Esan bezala, telekomunikazio enpresek eskualde menditsuak abandonatu ohi dituzte. Baita Katalunian ere. Testuinguru honetan jaio zen 2004. urtean aipatutako proiektua.

Guifi.net sarea telekomunikazio azpiegitura da, Internet eta bestelako zerbitzuak eskuratzeko balio duena. Normalean Interneten inguruan hitz egiten dugu, baina beste zerbitzu asko sortu ditzakegu sare honen gainean: Herriarren fitxategiak konpartitzeko zerbitzuak, liburutegi digital zerbitzua, herriarren artean doako telefono deiak egiteko aukera... eta abar luze bat.

Proiektu herritarra da eta sare ireki, libre eta neutrala eraikitzea du helburu. Honek esan nahi du, edozein dela erabiltzailearen helburua (pertsonek, enpresa ala instituzio publikoak) sare hau erabiltzeko eskubidea duela.

Azpiegitura hau herriak, herritarrek, instituzioek, enpresek edo bertako eragileek sortzen dute. Azken finean, etxeetan



Unai Guifinet proiektua azaltzen aranoarrei.



Guifinet sare egitura.



Mendi inguruetan telekomunikazioak garestiagoak dira.

antenak jarri (telebistarako erabiltzen diren antzera) eta antena hauen artean sare bat eraikitzean datza. Aranoren kasuan, gure lehen helburua Ereñotzu konektatzea litzateke. Konexio horri esker, Interneteko banda zabalera handia Aranoa eramatea lortuko genuke. Eta de-

non artean ordainduko dugunez, konexio gastua oso txikia izango da erabiltzaile bakoitzarentzako. Aurrera begira gainera, Goizueta-rrak ere sarean parte hartu nahiko balute, Goizueta eta Oiartzu-nera konektatzeko aukera izango genuke.

Aranon Guifi.net eraikitze-ko proiektua martxan da. Jalki Kultur Elkarteak diseinu fasean dauka eta egin behar diren azter-

ketak aurrera eramaten ari gara. Dagoeneko 18 etxe/baserri/familiak eman dute izena. Diseinu fasea bukatu ondoren, diru-laguntzak lotu eta proiektuak dakartzan inbertsio eta gastu ekonomikoek aurre egingo diegun erabakiko dugu.

● **Unai Gorrotxategi**

EUSKARALDIA



Kontzejuko tabernako arbelean herritarrek egindako Euskaraldiaren irudia.

Zalantzarik gabe aurtan, euskarak toki eta presentzia handia izan du Euskal Herri osoan, baita ARANON ere. Herritar askoren AHO eta BELARRiletara iritsi da hizkuntza, EUSKARALDIaren olatu erraldoiak bulztatuta.

MIAXIRIA banatzerako amaitua da EUSKARALDIA baina seguru oraindik guztien gogoan dela ariketa sozial kolektibo honek sortutako oihartzuna. Azaroaren 23an hasi eta abenduaren 3ra bitartean hamaika egunez euskaraz aritu gara ahalik eta jende gehienarekin. Euskal Herri osoan eta aldiberean parte hartu dugu ariketa honetan, denok batera eta elkarrekin, AHOBIZI eta BELARRIPREST txapak jantzita. Baita Aranon ere.

Guztira 39 herritarrek eman genuen izena Aranon, 31 AHOBIZI eta 8 BELARRIPREST izan gara. Guztiek bat egin dugu egitasmo honek izan duen helburu nagusiarekin: herritarren hizkuntza ohiturak aldatzen saiatzea. Modu batean edo bestean, ohartu gara gure inguruan zenbatek ulertzen duen euskaraz. Euskararen sarea uste baino zabalagoa de-



la ikusi dugu eta horrek uste baino jende gehiagorekin hitz egitea ahalbidetu du.

Txapak paparrean eramateak herritarren hizkuntza gaitasunak bisibilizatzen

lagundu digu, parekoak euskaraz badakien edo ulertzeko gai den erakutsiz.

Aranoarrak ere txapa jantzita ibili gara nola kanpoan hala herrian. Kontzejuko hormako arbelean ere Ahobi-ziak eta Belarriprestak margotu genituen Aranok Euskaraldiarekin bat egin duela adierazteko. Herriko festetako itxaferua ere euskara ikasten ari direnek bota zuten, egiten ari diren ahalegina eskertu nahi dielako herriak, nolabait.

Egindako bidean guztien borondatea eta konpromezua izan dira beharrezkoak. Baita orain ere, Euskaraldia amaitu denean. Izan ere 12. egunetik aurrera euskaraz aritzeko eta entzuteko prest gaudela adieraztea garrantzitsua da, orain arte hartu dugun ohiturak etenik izan ez dezan.

Bukatzeke, Maialen Arzallus bertso-lariak Euskaraldiaren amaierako manifestuan idatzitakoa ekarriko dugu gogora: "Arnas luzeko bidea da hau eta ba-koitzaren abiapuntutik aurrerapausoak ematen eta inertziak astintzen jarraitzea da helburua. **Ez ahaztu Euskaraldiko egunik garrantzitsuena Hamabigarrena dela**".

● Euskara zerbitzua

Lehengo eta oraingo aguazilak ezagutuz

Nor zara?

Joxe Ramon Zabala Almandoz. Pertsona apala, umila izan naizena, jendeari ongi egiten saiatu naizena.

Noiz sartu zinen aguazil, zenbat urte zenituen orduan?

1996an, 43 urte nituela hasi nintzen eta 21 urte eta 7 hilabete pasa ditut bertan 2018ko otsailean jubilatu nintzen arte.

Aurretik zein beste lanetan aritu zinen?

12 urterekin herriko auzolanetan parte hartzen hasi nintzen, gero 16rekin mendian lan egitera joan nintzen soldaduska egitea tokatu zitzaidan arte. Soldaduskan, Gasteiz eta Loiolatik pasa ondoren erresidentziako "Granjan" egon nintzen 10 hilabetez. Gureola, Orbegoza eta Heineken fabriketatik pasa nintzen aguazil postua hartu nuen arte. Ia lanpostu guztietan mendiarekin harremana zuten egin beharrak nituen, fundizioan izan ezik.

Nola sartu zinen aguazil?

Udaletxeko tabloian jarri zuen Udaletxeak oharra, autoa eta "certificado de estudios primarios" ziren beharrezkoak aurkezteko. Ni bakarririk aurkeztu eta zuzenean lanean jarri nintzen. Hiru urte ondoren fijo egin ninduten.

Zein ziren zure egin beharrak?

Gauza asko. Mendi eta bideak garbitu, argiak, ura, depositu eta presen mantenua eta abar handi bat. Egunero egunero egindakoen parte idazten nuen eta guztia erregistratua dago.

Zu bakarrik egon zara lanean beti?

Denbora gehienez bai, baina laguntzaile batzuk ere izan nituen tarteak, Dabid, Haritz eta azkenik praktikan etorri zen Coro. Mendia garbitzen laguntzeko heldu ziren hiru hilabetez bakoitza eta ni ongi konpondu naiz denekin beti.

Oroitzen duzu zure aurretik nor izan zen alguazil?

Gu tikiak ginela guarda bat izaten zen, Matias Huizi. Bera mendi zaindaria zen gehien bat, herrilana eta auzolana antolatzeaz ere ardura-zen zen.

Zein zen lanaren alderik politena?

Dena egiten nuen gustura, gu lanean ohituak izan gara. Beste gauza batzuk izan dira problemak...

Zerbait bota zenuen faltan aguazil zinela?

Faltan ez... bueno, hitza aprobetxatuko dut frontoi estalia faltan sumatzen dudala esateko, eta hau ezagutu gabe joango naizelakoan nagoela. Bestela lankide bat agian, baina banekien ezin denean ezin dela.

Zure bizitza aldatu egin al da jubilatu zinenetik?

Igual igual bizi naiz, preokupazio berdinak ditut. Javierrek oraindik ikasteko asko du eta nik auzolan moduan hartuko dut bera laguntzen jarraitzea.



Nor zara?

Javier Ansa Egurretxea. Gazte bat (irri artean), Aranoko Basurde, gizon langilea, ehiztaria eta herriaren zaindaria.

2018ko martxoan hasi zinen aguazil, zer moduz daramazu lanpostu berria?

Oraindik ikasle sentitzen naiz, gauza berri asko ikasteko beharrean nago. Bestela orokorrean ondo.

Zein lanetan aritu zara honen aurretik? orain egiten duzunarekin loturarik badute?

Igeltsero, fabrika, bodegero, mekaniko edo baserriarren laguntzaile... gehienek bazuten zerikusia oraingo lanbidearekin. Orain gainera, elizako kanpandorreaz ere ni arduratzen naiz eta erlojuari kuerda ematen ere ibiltzen naiz.

Zeintzuk dira orain zure egin beharrak zehazki?

Segalari, iturgin, basozain, elektrizista, elurra garbitu, kimaketak, uraren kontrola, gauza asko dira. Hasieran Joxe Ramonen laguntza izaten ari naiz, nahiz eta gauza asko nire kontura egiten ditudan jada.

Nolakoa izan zen onartzeko proba, nola bizitu zenuen prozesua?

Bueno... oso luzea egin zitzaidan zain egotea. Joxe Ramonen baja bete nuen duela gutxi beraz, egin genituen probak ez ziren berriak niretzako, erraz pasa nituen. Hala ere Euskara proba eta segurtasun kontuak, motozerrarenak adibidez, interneten informazioa bilatuz prestatu nituen.

Zure bizitza asko aldatu da lan honetan zaudenetik?

Oso goiz jaikitzen naiz, lehen ez horrenbeste. Orain egunero seietan fin-fin, "como un reloj".

Zein da lanaren alderik politena?

Zu zeu zara zure lanaren nagusi. Ez duzu inor begira. Lanak beharren arabera zorerrek antolatzen dituzu eta hori oso erosoa da. Egin beharreko lanen jarraipena astero egiten dugu baina Udalak askatasun handia ematen dit horretan.

Eta gutxien gustuko duzuna?

Konpromiso bat badago. Inork ez du nabari, baina ura amaitzen bada adibidez... gauza txiki askoren ardura dut eta arreta handia izan beharra daukat, hasieran behintzat.

Zer eskatuko zenieke herriarrei udal langile bezala?

Pixka bat inplikatzeko, lan ezberdin asko daude eta norberak bere etxe ingurua garbi mantendu eta zaintzea.



Maisueneea

Bere ibilbidea 2017ko azaroan hasi zuen Maisueneak. Udalak ilusio handiz berri zuen eraikina, hainbat maisu eta maistren bizileku izandakoa. Herriak erabilera askotarikoa emateko zela esanez egin zen inaugurazioa. Hauxe zen asmoa; behar zenerako eskura egongo zen areto koxkor bat Aranok izatea. Hau erabiltzeko baldintza bakarra hasiera batean, herritar guztiak irekiak egongo ziren jarduerak herriko edonork, bai, EDONORK eskaintzea.

Batzuetan, antolatu diren ekintzak hurrei eskainiak egon dira espresuki, beste batzuetan hurrek gurasoekin denbora pasa zezaten bilatu da, besteetan helduei bideratutako jarduerak antolatu dira, eta gehienetan publiko guztientzat egokiak zirenak. Arano herri txikia da, baina asko du eskaintzeko. Jakintza handia dugu guztiok batera, bakoitzak berean, eta hau ingurukoaren eskura jartzea aberasgarria izan daiteke. Ez al duzue uste?

Maisueneak ilusioa behar du, eta egi-teko gogoia. Gauza materialak falta badi-
tu ere, hasierako horrexerekin, asko egin daiteke herri giroa sortzeko.

Ibilbidea hasi besterik ez da egin, bai-na, batez ere herritar batzuren ekimenari esker eta Udalaren bitartez hainbat zerbitzuekin elkarlanean antolatu diren ekintaldiak ahaztu gabe, egin diren jarduerak argazkitan islatzea bururatu zaigu. Argazkiek hitzek baino hobeto adieraziko dute, beste behin ere, Maisuenearen berpiztea.

Hona hemen collage txiki bat eta...
segi dezala Maisuenearen herrian dauden ekintzak babesten!

● Ainhoa Ansa








Arano, iruditan

Aldizkariko V. ale honetan ikusiko dituzuen argazkiak Ekaitz Saezenak dira. Paisaiak, zuhaitzak, xendak, betizuak,... irudi ederrez osatutako erreportajea duzue eskuartean. Oraingo hau ere zuen gustukoa izatea espero dugu.









Erlea, Jaungoikoaren hurrengoa ote?

Erlea edo erlezaintza, aspalditik datorkidan pasioa edo maitasuna gaurko idazlan honen bidez azalera-tu nahiko nuke. Batik bat, Aranoko herriarekin xomorro maitagarri hauek mendez-mende izan duten lotura estua erantzi nahian. Nere zaletasun hau Aranoko gure etxeko batek areagotu zidan eta harrek bultzada eman zidan erleak are eta gehiago zaintzeko eta errespetatzeko.

Antzinatek erle munduak lotura haundia eduki du gizakiengan. Haitzulotan ageri diren marrazkietan ikusgai dira erleak (Harri Arokoa da "La Araña" leizezuloko irudi ederra, Espainiako Valentzia aldean delarik). Beste aipamen berexia Egiptoko Abandan edo Zibilizazio aurreratuan. Faraoiak eta beren herriak berebiziko maitasuna zieten erleei eta beren jergilfiko edo paretetan, berak pintatutako pasarte horietan ere, azaltzen dira xomorro langile hauek. Bizimodu arruntean funtsezko zutabea zen erlea nola janarian hala medikuntzan eta, azpimarratu daiteke, egiptoarrak izan zirela aurreneko erlezale profesionalak. Aintzinatek Egiptoko gizarte hontan, goi mailako lanbide bat "eztiaren zigilaria" edo "sellador de miel" deiturikoa izan zen. Erlea Estatutuko gai nagusitzat jotzen zuten eta Faraoiek danek beren izenei eransten zieten erleena. Gainera, argizaria gorputzak enbalsamatzeko nahita nahiezko materiala zen eta horiei begira ikasi zuten gorpuak kontserbatzeko teknika. Beren erlijioak dioenez, Ra Jainkoaren malkoak dira erleak eta lurlean ixuri ditu negar malko hauek. Era berean, Ra da eguzkia eta bizitzaren Jainkoa, hau da, erlea bizitza bera da eta gu, maizegi zoritxarrez, beren kaltean ari gara. (Euskal Herrian anderea ere deitzen diote erleari toki anitzetan).

Gure lurralde zahar honi dagokionez, erlea eta baserritarra (laborari edo bordinaria) uztarri batean bizitu dira mendez mende. Atzeneko urteetan, baserria itzaltzen dioan neurrian, erlea ere gutxitzen ari da etengabe, eta bere ezagutza eta zor zaion errespetua deusezten. Gehiago esatera ausartuko nintzateke: jendeak, askotan ezjakintasunagatik, erleen pozoiari eta ziztadari arreta gehiago jartzen diote egiten diguten onurari baino.

Euskaldunok erleenganako izan dugun jakinmin, sinismen eta begirunea aspaldi-



Erleak Martzeneako leiho koskan.

ko denboretatik datozkigu. Nabarmen gelditzen zaigu ohitura eta izen deituretan. Euskal Herriko Pedro Axular idazle ospetsuak bere Gero (1643) liburu sonatuan honela zioen: "Erleak, hain gauza ttipiak eta flakoak, bethatzen du mundua, eztiz eztitzeko, eta ezkoz (argizariz) argitzeko". Orduko argizaria (argia) gaurko Iberdrola zen! Atera kontuak!!

Euskal literaturari jarraituz ezin ahaztu gaiari buruz argitaratutako liburuak,

hona adibide batzuk: "Erle gobernatzaileen guidariya edo erleac gobernatceco modua" (Iruñea, 1827); edo Ixaak L. Mendizabalen "Erleak: beren bizitza eta ohiturak" (Tolosa, 1933); Txomin Jakarotajarenaren "Erlezaintza I eta II" (1989); eta abar luze bat.

"Erle" andre izena zen eta Nafarroako agiri zaharretan datu hau argi eta garbi ageri da. Toponimia aldetik ere, mila eta mila izen ditugu: Erletxe, Erletxeta, Eultza,



Etzeko erlauntza.

ta y dos pesetas.	352.-
Quatro vacas y dos terneros en seiscientos noventa pesetas.	690.-
Do cerdos en cien pesetas.	100.-
Un burro en diez pesetas.	10.-
Quatro colmenas de abejas en veinte y cuatro pesetas.	24.-
<u>Muebles</u>	
El mueblaje de casa compuesto de cinco camas	

Etzeko jabetzen balioa, tartean, zituzten 4 erleontziena.

Erletegieta, Erleetako lepoa... Sinismen aldetik, zer esanik ez, erlea eta heriotza esaterako elkar itsatsita dijoazte. Hasteko, hizketa egiten zaio erleari etxekoren bat hiltzen denean, honatx Azkue haundiak Beran (Nafarroan) bildutako pasartea: Beran, Suspela deritzaion auzoko emakume batek, bere adiskide baten heriotzea honela iragarri zien erleei, erletegiari hots batzuk emanez: "Etxeko andria hil da ta egizu argizeri, zerura bialtzeko".

Aranora itzuliz, gure herrian etzeko parte garrantzitsu bat zen erlea. Datu esanguratsua da gure baserriko (Martzenekobordako) eskritura zaharretan ipinirik agertzea erletxoak, era hontanxen: "4 colmenas 24 pesetas (1891), tres colmenas 30 pesetas (1932)". Bestetik, Suro aldea leku aproposa da langile amorratu hauentzat, topagune dotorea dutelarik "egutera" garbia izanda; Arregi, Txurdangikoborda, Beltsekoborda, Martzenekoborda... Leku hauetan erlete-



Erleak mantsotzeko kea botatzen duen tresna.

giak izandu dira eta badira oraindik ere. Erlekume berria botatzen zutenean erletegiatik kanpora, orduko aranoarrak kanta hau erabiltzen zuten, kajan sar zitezen erleak eta erregina: "Mari Eder bertan"

Gurean dabilen erle klasea txikia da eta Euskal Herrian zaharrenetakoa. Gainera bi gune aialtzen dira indartsueta-takoak bezala: Oñati eta Goizueta. Erle beltza diosku herri xeheak (Goizuetako bidean kaja mordoxka ikusterik bada bide bazterrean neguan). Elkarte bat sortu dute beren zaintzarako eta ugaltzeko.

Eztiz eta argizariz saritzeaz gain, erleen "pozoia" medikuntzan erabili dute gure Herri maitean. Sorginek edo sendagile hauek ederki ezagutzen zuten erlezitadaren balioa, gaitzak uxatzeko. Erleen eztenkadak balio du odolaren martxa arintzeko, ximurak beratzeko, txertoaren eginkizuna naturalki kubritzeko... Arte honi erle-terapia deitzen diogu eta baserrietan gure aurrekoek ezagun zuten jardun hau.

Honetatik aparte zientzian adituek eta munduko jakitunek zer diote? erleak hil eta gero akabo gizateria eta bere inguru guztia. Hondamendia gelditu ezina litzateke eta gure Ama Lurra zendu egingo litzateke betirako. Ez jakirik eta bizitzaren katea eten egingo litzateke. Beraz, zaindu eta erruz maitatu erlea, batez ere beren mundu liluragarriaz jabetu, ikasi bere bizimodu garbia eta ematen diguten emaitzaz gozatu.

Erleak udan ere kanpotik etxera eramaten du, harrek badaki bere burua neguan nola mantendu. Iñori ez dio ezer ostutzen berak egiña jaten du, erliak danak alkar artuta alperra eta elbarra kendu, guk askozaz ere obe genduke ori egingo bagendu.

● Jose Iñazio Salaberria



Aranoko hots ahaztuak II

Jar zaitezte momentu batez isiltasunean. Ze hots entzuten dituzue inguruan?

Orain bi urteko Miaxirian, Aranon garai batean entzuten ziren hots eta soinu batzuk ekarri genituen gogora. Bertako baserriar batzuei galdetuz, tronpetak, karraka eta eltzeorra bezalako musika tresna nahiz animaliak uxatzeko tresnak ezagutu genituen, esate baterako. Beste musika tresna eta jostailu batzuk ere izan zuten lekua, hala nola, krixkitiñak eta txistuak. Lanak eta soinuak harreman handia dute gure baserrietan, baina lehen orain baino nabarmenagoa zen bien arteko lotura, orduko baserriak emankorragoak izaki. Horren lekuko izan ziren jarraian elkarriketatutako artzain eta baserriarrek, eta haien kontuak dakartzat oraingoan.

Aranoko lau baserrietan egon naiz, penaz gainera, gehiagorekin ere hitz egiteko gogoz geratu bainaiz. Duela bi urte hasi nituen elkarriketak. Lehenik nire etxean, noski, Suroko Beltsoko Borda baserrian,

Jose Antonio eta Maria Jesusekin. Eta bigarrenik, Leontxon Bordako Xantirekin. Aurten, berriz, Gorozkeneako Marina eta haren familiarekin egon naiz (Jexuxekin eta Mari Joserekin) eta, amaitzeko, Ezkerren Bordan, Pello eta Ana Marirekin. Hauek dira berreskuratu nahi izan ditugun hots xume bezain politak.

ZINTZARRI, JOALE eta KONTUAK

Aspaldian animalia ia guztiei jartzen zitzaizkien zintzarri edo joaleei buruz hitz egitea ezinbestekoa da. Eta zer diozue artaldearen soinuez? Oraindik entzuten dugun soinua da zorionez Aranon, baina, ba al zenekiten ardiek eramaten dituzten joale guztiek ez dutela izen berdina? Eta ba al dakizue artzain batek joale bakoitzak zer soinu duen eta hau zein ardiri jartzen dion berehala ezagutzen duela?

Lau baserrietan bilatu ditugu joale asko eta haien izen eta hots desberdinen inguruan honakoak esan dizkigute.

GOROZKENEA

Joale asko eta oso zaharrak aurkitu ditugu Gorozkenean, txukun aski prestatuak Mari Josek.

Honela dio Marinak: *Hemen dauden zaharranak Zubitatik kartzen zittuen oinez Juan ta... ta geo hasi zian Goizutatik kartzen. Goizutakuk zurixioguak dia... Gue itxian Tereseneko Bordan gutxiyo izaten ginittun, artaldia're txikixogua izaten zuen, ne attak hala nahio zula-ko... behiak' e goernatu bihar izaten zian ta... miño Goozkenen pila izuarriya izaten zuen. Denak inzialakin jartzen zittuen, mendin ardin bat hitzen bazen geo joalia izautzeko. J.L. ta batzuk J.L.P. inzialakin.*

Jexuxek: *Ingudian jarri ta mailuakin grabatzeko izaten zittun inzialak.*

Marinak: *Ardik seinaliak'e izaten zittuen belarritan. Baserri guzitan difentia izaten zuen...lehen denanak banakizkin ta uan gutxi batzuk akortzen naz...*



Ezkerretik eskuinera: Ardintzat koilaria, behian kanpanila, behorrantzat joalea. Txakurrana, bildotsana, artantxuana, arkaxtiana, ardiyana. Ahariyanak, alonduantzat, ardi ede-rraguantzat ta zikiruantzat.



Ezkerretik eskuinera: Koskabilua, kanpalina, bildots txintxarriya, joale koxkorra, joale kalaxka, behean: dilinga, ahari joalia, feri joalia, joalarriya, pulunpa.

Ardik'e denetik izaten zian, per-tsonak bezela, ta ederranaí joale haundixeguak jartzen zizkiyuen. Ederrenai eo... bizkorrekuanai... bakizu, txakurrai ttikinak, ta geo, arditan, lehenbizi bildotsa da ta ha-rei joaleik ttikina, geo artantxuui haundixegua, arkaxtiai haundixe-guak ta geo ardiya lau bat urtekin, horrei joale kalaxka... Umatzekuai etzitzayuen jartzia gustatzen karga haundiya hartzen zuelako....

Jexuxen attak, hemengo atto-nak, zikiruai eder hauek jartzen zizkiyuen (bulunbangatik dio) Mendira bialtzen zit-tuen ta geo saldu igual itten zittuen...erki aitzen zen punpa, punpa, punpa...Alon-duai eta ahariyai-ta re difentiak jartzen zitzaizkiyuen.

Denbo batekuk mingaintako hezurre izaten zuen, o behian adarrakin indakua're bai, ta eurrakin 'e itten zittuen... Geo hasi zian bestelako mingainak itten.

Marina: Garai batian mendira juan kaikuakin, ardik bildu, borda sartu, jeitzi (ume batzuk kenduk zian ta)... txabolan lo in, ta hurrengo goizian ondoko txabo-lan berriz'e jeitzi ta itxe esniakin tortzen zian. Borda gehinak txabolak izaten zit-tuen ondun lo itteko. Txarak, Matsolak, Mairizeneko bordak, Antseneko-Bor-dak,... bazittuen azpikaldian txoola tti-kik artzaiantzat! Ta mamiya, berriz, ar-kumiai kendutako gatzaiaikin itten zen... naturalagua.

Bihorran joaliak'e difentiak izaten zian, haundiguk. Kapritxuk zittuen atton hoik... nolabatte juan da joaliak ekartzekua... batzuk dibujukin ta... hortatik bizi zian ta hortako.



Hezurrarekin, egurrarekin eta behi adarrekin egindako mingainak.

Ustaiak attonak itten zittun ta azke-nalde Mairizeneko Joxe Marik... ustaiak ere tamaina desberdinetakoak izaten zi-ren, noski, animalian tamainan arabera.

BELTSOKO BORDA

Betidanik baserrian bizi izan den arren, behiak baino nahiago izan ditu ardiak Jo-se Antoniok: Jarri ta aste bete miño lehe-no nik ezautzen dut zein ardiri jarri yuan ze joale. Bat aitzen duanian ez dut bei-tu biharrik izaten zein ardi den jakittek.

Urtean bitan edo aldatzen omen zizkie-ten joaleak eta Beltsoko Bordako amona Eleuteria haserre egoten omen zen, bela-rrian artaldearen joale soinuua sartzen zi-tzaionerako, aitonak berriz aldatzen omen zizkion eta. Mendira juateko ardi billots-dunak txintxarri ttikikin bialtzen ginittun ta antzuk berriz, joale larri o pulunpakin.

Maria Jesusek zera gehitzen du: ta zenbat ta ardi gaixtogua ta bizkorragua, ordun ta joale haundigukin bialtzen zit-tuen. Attonak, egualdi txarra zonian, beti joale konpontzen o aldatzen aitzen zian.

Menditik bueltan ekarterakoan, berriz, Jose Antoniok dio, mendian bertan joaleak

aldatzen zizkietela batzuetan eta, esaterako, ama baten txintxarria beste baten bildotsari jartzen zie-la: Txintxarria kentzian ez giniyon be bildotsai jartzen. Beste batenai jartzen saiatzen ginan, bestela ez ziyuen ongi seitzen bueltakun itxee. Ta bildotsak mendira bialtzekun beti txintxarrikin jartzen ginittun azerik gutxiyo botzen zittuela saten tzuen ta! Hala zen o ez zen... zalantzan uzten du azken hau Jose Antoniok.

Jose Antoniok "urri mozker" ekarri du gogora. "Apaintziai saten zi-tzain, Ezkerren Bordan uan denbo gutxi're itten zittuen!"

Hemen duzue joale ezberdinei Jose Antoniok nola deitzen dien.

Maria Jesusek dio: Txerriri're jartzen zi-tzaiuen gaztañata juateko, ta manduai're bai! Oso politta izaten zen mandazaia nola juaten zen menditik. Koskabilukin indako koilare bat erabiltzen zuen. Nik hasieran uste izate nun lehenbiziko manduai jar-tzen zitzauiela koilaria miño, geo kontu-ratu nitzan, azkenekuk eamaten zula! Lau o bost mando juaten zian bat bestiai so-kakin lotu ta eurras o kargatuk. Mandon bat eskatzen bazen, seittun kontutzen zen mandazaia, soinuua ixildu itten baitzen! Do-toria izaten zen soinu hura... baita behian gurdian irrintzi hura're, eurrak ardatza o erruedan kontra jotzen zunian sortzen zun soinu hura... nei iruitzen zitzaidan gurdi-ya kantari juaten zela ta errabiya ematen zian gue itxeko (Goizuetako Artantxuko) gurdidak ez zulako kantatzen! Ongi en-grasatua izaten izango zun attak seuru-na're... miño beste baserriko gurdian irrintzi hura ikiarri gustatzen zitzaian!



Joaliak: bihorrantzat eta ahuntzentzat.



Zikiro jualiak argazkian.

Ezkerretik eskuinera: Artantxu, zerri ta zakurrai jartzeko zintzarria; zerriyana; artantxuantzat joale koxkorra; ahariantzat joale kalaka; ardiai jartzeko joale bringa; pulunpa; behiantzat kanpalina; behiantzat joalia (haundiena).

Joxe Antoniok esaera hau du gogoan: *Nik ezautu nun, esayera... lau mando karga ta bost deskarga! hura re kargatuta juango yunen ba atzetik...*

Bihorrai're itxian zian joale haundinx-kunak ta zahar xamarra jartzen ginizkiyuen, ta aste burutan, berriz itxe ingurura kartzeko non zabiltzan jakittekona zen, uandik'e jartzen dizkiyue batzuk behintzat.

LEONTXON BORDA

Xantik ederki gogoratzen ditu lehengo garaiak eta oraindik belarrian ditu soinu ederrak.

Oilaor zakurrai jartzen zitzaizuen joale ttiki bat, ez uan urte asko arte. Non zein zakur zailen aitzen zen erki ta gelditzen zianian... seinale oilaorra ikusi zutela ta mendin non zailtzen bazanakin! Uan, berriz, GPS o holakuan "pi pi pi" soinua besteik ez da ehiza garayan!

Zerriri're bai... Oso ezauna izaten zen, asko maitzen baitzuen jatekuan lepua ta erki gastatzen zittuen joaliak... erki aitzen zen non zailtzen! gaztañaitan ta...

Baita behia're, batzutan kanpalinak ta bestetan horko behiantzako joale haundi xamarra'e bai. Ahuntza ta behorrantzat'e harrapatu ttut ganbaran joaliak hara hemen (argazkia) harrapatu ttutenak:

Beste animaliekin jarraituz: *"Astuak denbo batian ibiltzen zun koilare ttikigua besabian, manduai haundixiuk lau o bost petralian.... Kilis kalas koskabilun soinuk erki aitzen tzian. Lehen gurdy bidiak, uango autopistak izaten zian... ordun espa izaten zen bodako arreuakin zeinek miño*

zeinek gurdy haundigua eaman ta irrintzi haundiguakin..."

Ardiekin berriz, honela kontatu zigun: *Udazkenian, ardik itten ginittun apaindu, azpiya ta lepogaña moztuta, apaindu!! hoik eatxi... ze kapritxuk! malda batetik beste zakurra maitzen zittuenian, denak bate... hura marrua! hoi bai zalaparta! berroita hamar miño gehio... Pasatako garaiek ematen duten nostalgiaz bukatu du esaldia Xantik.*

Koilare hau, *koskabilu* eta *kanpaline*-kin osatutakoa da ardiei jartzeko erabiltzen zutena bildotsekin belasorora eramaten zituztenean.

Xanti: *Erbiñudiak ardiyan errapian kozka itten baziyeu errapia usteldu ta juaten zitzaizuen ta honek izutu itten zittun... primaberan ardik umatzen ai zian garayian ohittuera izaten zen koilare hoik eaxtekua.*

EZKERREN BORDA

Pellok eta Ana Marik ere gozo jaso ninduten Ezkerren bordako sukaldean, baserri hauetako ohitura den legez:

Pello: *"Beltsoko Bordako denbo bateko attona Antonion anaia izaten zen hona (Ezkerren borda) torriya mutil zahar bat, ta horrek karrik izaten zian honea lehenbiziko joaliak seuruna... Zubitatik Goizutako plaza karri zaku batian... ustu plazan ta handik karrik! Goizutan gu gaztiak ginala hasi zian joale itten. Lehenbizi hasi zian kobre koloriakin, erretzen labian. Ikiarri kostatzen ta geo pintatzen hasi zian. Busti ta bela juaten zitzaizuen koloria ordia! Txapa bakarra gelditzen zen ibiliyakin... Ana*

Marik'e ematen yo purpurina kontserbatzeko eta eakusteko hobeto daudela ta.

Hezurraikin mingaintako're bazian, oso konta hala... *Fabrikan 36 urtekin edo hasiko nitzan ta 1972-tik artzai txakur pestan ibiltzen nitzan! Zintzarrik oso motelak zian ordu arte hemen zaudenak, ta osaba Bittorianok karri zittun dozena bat zintzarri ikia-ri dotoriak, bildotsantzat bezela... joeee! haik karri zianian... hau poza!!! Attak'e Goizutatik noizbatte karri zittun miño...*

Honela, bera lanean hasi eta gogoratzen du ze pozarekin ekartzen zituen etxera zintzarriak. Pello: *Goizutatik kartzen ginttun, Xanti Leontxon Bordakua ta biyek oinez, uan miño sasoi hobia giniñen... Belakoko Xebeinongana jun ta, belarrian lana zuela ta... Belako jun, haikin berrize herrira torri ta ordun eosi ginittu... ardin joale borobil ttitik karri ginittun, bringak, ta iluntzeko itxe torri ginan. Gue poza!!*

Joale gilingak haundiguk izaten zian, ardi haundixioguai. Geo haundiyoik zikiruntzat, bulunba haundiya ta ttikixeo-gua... Hoik denak eatsi izan ginizkiyuen! Jesuuuuss...hemen ehun ardi beti iz andu zian. Geo, Zumarragako peritik karri izandu ttut bi, ahariyantzat, ta hoin igualik ez da aleik'e...

Koilaria ardiyai eaxten giniyuen, koskabilu ta kanpanilakin, erbiñudiantzat eo... Xantik emandako azalpena gogorazi digu honek! Pellok berak dituenak hauek dira baina, Sargatzen koilarre ederrak ziztutela gogoratzen da.

Urtian bi aldiz aldatzen zian, udazkenian ahariya botzian eatsi... geo udaberrin



Ezkerren Bordan, Pello eta Ana Marik prestatutako argazkia, ederra benetan.



Leontxon Bordako koilaria, koskabiluakin.



Ezkerren Bordako koilariak.

denak kendu ta udako ttikixeoguak beti, larree bialtzeko. Udazkenian, gue attak! Amajinat itten zuen ta... Enaztiko attona zen hortan fenomenua! Ardik apaintzen! Lan ikiarriya zen... Uan, berriz, batez! Umatzekuai kendu itten ginizkiyuen primaberan... batzuk merezi're izaten due ez kentzia miño...

Belarrin seinaliak'e izaten zittuen ardik. Nik uandik'e seinalatzen ttut ta Santa Krutz eunian beti!

Aranon zian joaleik haundintxunak Gozkenen izaten zian! Harrittuta eoten nitzan ttikitan... Haik zikiruk!!! Jose Aola izuarriya baitzen! Haren kapritxua!

Hemen, Aolako Amerikanua, Joxe Luis Leonet'ei eosi nizkan bi pulunpa errak, soi-

nutik erki ezautzen ttut uandik'e... Artzai Ameriketa jun ta hara, hemendik eaman men zittun! Ta bueltatu zenian, hiru urteta eo, pulunpakin bueltatu zen. Nik hari eosi nizkan, fabrikan guekin hasiya zen orduko ta. Hoi Gozkenekun attan lehengusua zen, uan hila da.

Ana Marik: Pello, Xanti eta Joxe Antonio artzai jatorrak zian, hortako're baliyo in bihar du!

Egia da artzaiek, bakoitzak bere artaldearen soinua ezagutzen zuela eta gehiagor esango dugu, baita ardi bakoitzari zein joale jartzen zien ere. Honen inguruan Pellok dio: Izaten dia igual askik'e! Ta hoi mendin txarra geiltzen da...igual kriston bidiatan jun ta... mekabenla!!!

BIDALTZEKO ETA ERAKARTZEKO DEIAK

Baserriarekin lotura duen beste soinu berezi bat, animaliei deitzeko edo bidaltzerakoan ahoarekin egiten den txistua, eta horrekin lotutako hitzak/soinuak dira. Maria Jesusek dio desberdina dela bidaltzerakoan egiten diozun txistua eta ekarrarazterakoan egiten diozun dei txistua. Marina eta biek ardiei: *Toox, toox, tox* ekartzeko esaten zien eta umatu berritan Maria Jesusek *ayi, ayi* ere esaten zien. Behiari Maria Jesusek: *toz torri toz...* eta Marinak: *hori, hori, hori, toz, toz...* Marinarekin jarraituaz, kolkari: *kolka, kolka, kolka, toz, toz...* eta oiloari: *purra, purra, purra...* eta txerriyai: *txiki, txiki, txiki...* Baserri-tar bakoitzak berera ohituta dauzka bere aziendak gobernatzerakoan, bistan da.

BUKATZEKO

Horrelako gertaerak hamaika izango ziren gure mendietan. Urrutira joan beraien ardien atzetik ziozelakoan eta, alper bidea egin eta buelta eman beharra (Pellok kontatu bezala)! Edo goizean goiz jeiki eta ardiak jeiztera abiatu beharra, mendiko bordetan lo eginez (Marinak zioen bezala), alde eginak biltzera hainbat artzairen ibilerak... Aranoko bazterrak ikusteagatik, hala ere, euri ihintzetan bustiak ia urteko egun gehienetan, plazer ederra!

Soinu gozo horietan murgiltzeagatik eskerrak eman nahi dizkizuegu parte hartu duzuen guztioi. Mila esker, argazkiak ateratzeko, azken aldian gorderik zenituzten joaleak atera eta antolatzeagatik. Pazientzia ederra hartu duzue!

Eskerrik asko bide batez, parte hartu ez, baina artzai lanetan aritzen zareten guztioi, zuei esker baitaude Aranoko belasoroak oraindik txukun. Zer izango ote da zuek joatean? Ez dakizue ze jakinduria eta zer nolako belarria daukazuen soinu guzti horiek denak ezagutzeko. Asko disfrutatu dut zuekin, hitz egin eta joaleen soinuak berriz entzunda.

Badakigu guztiok, artzaintzak Aranon izan duen garrantzia izan eta gero, aurrean duen etorkizuna ez dela nahi bezain ona, beraz, bertan jasotako kontuek norbaiten bihotza hunkitzen badute, nahikoa izango da oraingoa.

Eskerrik asko Aranoko artzaiei eta baserritarrei.

● **Aran'txa Ansa**

Aranori buruz esaten direnak tesi batean

Urumeako Zilegimendietako Toponimia izeneko doktorego tesiak, Luis Mari Zaldua Etxabe jaunak Patxi Salaberri Zaratiegiren zuzendaritzapean egin eta 2011n aurkeztuak, "Urumea ibaia bizkarrezur duen hogeita hemezortzi kilometro koadroko esparrua" du aztergai, orain "Donostia, Hernani eta Urnietako udalerrienak diren lau zatitan banatua" omen dagoena. Esparru horren mugakide diren herrien artean, Arano aipatzen da hor, Andoain, Astigarraga, Berastegi, Elduain eta Errenteriarekin batera.

Tesian esaten direnetatik, Aranoren kin zerikusia duten gauza batzuk ekarriko ditut hona [ez denak oraingoan; batzuk, beharbada interesgarrienak (mitoak, ohiturak, euskara), beste baterako utziko ditut]. Hasteko, hona hemen Luis Mari Zalduaren lanean irakur daitekeen 1671. urteko dokumentu bateko hitzak (orduko gaztelanian):

"... los términos, y confines del dicho valle de la Urumea empiezan a la parte de medio día, desde el Río Urumea, y el arroyo llamado Muga, que es termino de la jurisdicción del lugar de Arano, del Reyno de Navarra, hasta el cerro de Euncin, y desde allí, por la loma, y aguas vertientes a lo alto de Garagarza, y desde allí a otro alto llamado Carramichola, y desde allí a lo alto de Zaimola, y desde allí a Unamuño, y desde allí a lo alto de Ezela, donde se define el termino que corresponde a la jurisdicción del dicho lugar de Arano..." (13. or.)

Tesian aurki daitekeen beste informazio bat Arano eta beste herri batzuetako mendietan zebiltzan otsoek sortzen zuten arazoaz ari dena da. Tesiaren egilearen arabera, XIX. mendearen bukaera arte iraun zuen arazoak. Horren lekuko 1882ko urtarrilean *El Urumea* egunkarian agertu zen berria, 1992ko urtarrilaren 5ean *El Diario Vascon* berrargitaratua:

"1882ko lehen egun haietan otso-saldoak ikusi ziren Goizueta, Urnieta, Arano eta Berastegiko mendietan. Gose ziren eta ardiei eraso zieten eta, irentsi beharrez, baita abere handiagoei ere.



Eta, horrela, urtarrilaren 3an mando bati atzealdeko laurdenetako bat jan zioten. Donostiako eta Hernani eta Urnietako ehiztari batzuek ehizaldiak antolatu zituzten, baina ondorio eskasekin" (20. or.) *jatorrizkotik euskaratua*.

Urumea ibaiko izokinen arrantzaz ere hitz egiten du Luis Mari Zalduak. Informazio hau Dionisio Usarragari zor diola aipatzen du berak:

"Dakigula, izokinak arrantzatu dira URUMEAn 16. mendetik gaurdaino. 20. mendearen berrogeigarren hamarkadan arrain ugaria zegoen artean, 19. mendearen bukaera arte arrantzarako nasak erabili arren. Gizaldi horren amaieran indarretxeekin batera ibaian uharkak eraiki ziren (LASTAOLAKoa 1896. urtean eta ARRANBIDE zein SANTIAGOkoak 1898an), baina, hala eta guztiz ere, 20. mendearen hasieran, onak ziren urteetan (1930-1936 bitartean esaterako), urteko berrehun izokin baino gehiago arrantzatzen ziren" (22. or.)

Biztanleriaz ari dela, mendialdean barerriak hustuz joan baziren ere, hirurogeiko hamarkadan erreken inguru hurbila, Ereñotzu batez ere, jendez bete zela esaten digu autoreak. Horra etorri zen jendea, gainera, batez ere Goizueta eta Aranotik etorria zela gogorarazten digu.

Arano aipatua dagoen beste informazio bat bide-sarearena da. Hori dela eta, uste dut merezi duela hona ekartzea hor komunikabide nagusiaz, errepideaz ale-

gia, esaten dena; batez ere, noiz egin zen esaten delako:

Gure esparrua zeharkatzen duen komunikabide garrantzitsuena Hernanitik Nafarroako Goizuetara doan errepidea da. Gipuzkoako zatian Gi-515 (lehen SS-415) izena duen errepide estua erreken pare-paretik igarotzen da eta berrogeita hirugarren kilometroan Aranora igotzen den adarra du. Esan dezagun Urumea ibaia jarraituz Hernani Nafarroarekin lotzen zuen bidea 16. menderako bazela. Egungo bidea 1882. urtean egin zen ERENOTZUraino eta hortik Nafarroarainoko zatia 1888an bukatu zuten.

Gaur egun erabiltzen ez den arren, garai batean oso garrantzizkoa izan zen beste komunikabide bat ere aipatzen du Luis Marik: erreka, aurreko mendearen bukaera arte nabigatzeko modukoa omen zena Ereñotzuraino. Eta Larramendik 1754an idatzitako testu hau dakar:

"Urumea Nafarroako mendietan jaio-tzen den ibaia da eta, Gipuzkoan sartuta, munduko urik garbi, garden eta meheen ibaia da; horregatik eman-go zioten Ur mehea izen ederra ere, ur mehe, leun eta sotila. (...) Nabigagarria da bi legoa baino gehiago, Santa Katalina portutik hasi eta Ereñotzutik goraxeagoraino, eta ala edo gabarra zapal eta zabaletan igotzen dute mea Urumeako oletara eta jaisten burdina landua Donostiara (...)" *Jatorrizkotik euskaratua*.

● **Pello Huizi**

Txokolatezko bizkotxo



OSAGAIK:

BIZKOTXOARENTZAT:

- 6 arrautza
- 250 gr txokolate beltza (gutxienez %50)
- 130 gr gurina
- 150 gr azukrea
- 50 gr ogirina
- Gatz pixka bat

KOBERTURARENTZAT:

- 100 gr txokolate beltza
- 60 gr ura
- 60 gr azukrea
- 20 gr gurina

BIZKOTXOA:

Ontzi batean txokolatea eta gurina jarri urtutzen bainu marian. Hau urtutzean azukrea bota eta nahastu, gero arrautza gorringoak bota eta nahastu eta azkenik irina bota eta ongi nahastu.

Beste ontzi batean txuringoak altxa "a punto de nieve", gatzarekin. Txuringoak harrotuta daudenean txokolatearen nahasketa nahastu, eta suabe xamar, nahasi dena. Molde batean jarri (komeni da aurrez gurin edo olio piska bat emanda egotea moldean, ta bestela labeko paperarekin forratu). Labean sartu 180° tan 20-30 minutu (labea aldez aurretik berotuta).

KOBERTURA:

Osagai guztiak urtu bainu marian, eta ongi nahasi.

Bukatzeko bizkotxo desmoldatu, plater batean jarri eta txokolatea (kobertura) bota gainetik. Hozgailuan utzi pixka bat, txokolatea gogortzeko.

Barazki eta kalabazin lasagna



OSAGAIK:

- 1 Tipula
- 2 Porru
- 1 Azenario
- 1 Piper berde
- 1 Kalabazina
- 1 Baratxuri ale
- Gurina (kutxarilka bat)
- 2 Patata
- 1 Baso esne
- Gatz
- Olio

Alde batetik, tipula lauki txikitik txikitu, eta azenarioa, piperra eta porrua julianan (tira finatan) moztu. Hauek salteatu. Onddoak baratxuriekin egin eta gero barazkiei nahastu.

Patata zuritu eta ura, gatz eta olioekin egosten jarri xerratan moztuta. Egosia dagoenean, ahalik eta ur gehieina kendu eta esne pixka bat eta gurina bota. Ondoren purea egin batidorarekin (pixka bat arina, mehea).

Kalabazina garbitu eta bere azal eta guzti xerratan moztu eta plantxan pasa.

Azkeneko pausua lasagna montatu: Plateran azpian purea jarri, gero kalabazina, gainean barazkiak eta honen gainean berriz kalabazina. Bi kapa egin eta kalabazina jarri azkena. Bukatzeko gazta birrindua (railatua) bota eta gratinatu.

Lo dagoen zuhaitza

Fantasiatzko filme batetik ateratakoa dirudi lizar honek! Asmatuko al zenuke zein parajetan dagoen lozorroan?



SOLUZIOA: Itturro izeneko txokoan, Esillets errekararen ertzean.

Letra zopa

Letra zopa honetan Aranoko 15 baserriren izenak daude, ea aurkitzen dituzun!

I	L	O	E	T	Y	F	S	L	L	J	X	C	Z	B	V	
A	A	R	D	S	P	A	A	U	S	A	U	Y	A	A	E	Z
M	R	R	N	P	T	S	P	C	E	R	A	N	U	P	L	E
S	A	O	O	R	L	A	B	W	Z	R	N	U	W	A	T	D
K	A	R	T	L	B	A	R	E	E	E	I	O	B	T	S	A
A	B	G	T	Z	A	M	Z	T	Y	A	K	H	Y	A	O	M
F	J	E	A	I	A	K	U	A	A	N	E	H	H	R	K	R
Q	I	M	R	R	N	U	F	G	K	B	N	Y	R	I	O	L
A	D	Y	O	D	G	T	N	J	H	O	E	I	U	U	B	E
E	S	E	A	Q	O	A	X	D	A	R	B	R	T	O	O	N
V	A	Q	C	N	Y	S	Z	I	I	D	P	O	R	G	R	J
W	L	D	O	P	E	K	T	T	K	A	E	N	R	I	D	K
T	X	A	R	A	A	C	U	A	E	I	R	W	U	D	A	Z
O	B	I	X	A	R	G	O	R	R	I	U	I	Z	J	A	E
N	M	J	B	E	J	J	M	A	I	R	T	Z	E	N	E	A
X	Y	U	B	B	P	U	W	I	S	E	X	A	K	D	W	U
O	S	T	U	E	O	W	I	I	U	K	O	O	E	U	E	G

SOLUZIOA: Arola, Juanikene, Txara, Arotzaundi, Plazakoborda, Zapateri, Larreanborda, Martintxiki, Bixagorri, Perutxo, Mairizene, Berdosta, Estartaberr, Beltsokoborda eta Sagargazte.



5 aldeak aurkitu

Txakurren bi argazki hauen artean 5 ezberdintasun daude, ea aurkitzen dituzun.

Naturarekiko errespetua

Eneritz Salaberria aranoarrak eta Paula Etxeberria eta Uxue Rodríguez goizuetarrek errespetuari buruzko lan hau idatzi zuten, DBHko ikasleei zuzendutako “Eskolako Kazetaritza Lehiaketan” aurkezteko. Euskarazko atalean saria irabazi zuten. Zorionak hirukote!

“Natura” pentsatzen dugunean landare betetako baso bat etortzen zaigu burura. Baina gaur egun deforestazioaren edo euri azidoaren erruz basoak suntsituta daude.

Animaliak ehizatzen ditugu. Batzuk elikatzeke arrazoiarekin ehizatzen dituzte. Baina beste batzuk gozatzeko bakkari ehizatzen dituzte, hau da, ezertarako. Denbora pasa honek animalia asko desagerrarazi ditu. Gehienek pentsatuko dute lagungarria dela naturarentzat animalia mota bakoitzetik ale gutxiago egotera, baina, ez da hala. Animaliak ere bizitzeko ohituta egon daitezke beste animalia mota batez elikatzen. Gero eta gutxiago badaude, beraien bizimodua pixka bat aldatuko da. Baina aldaketa txiki hori gero eta gehiago handituko da, animalien bizitzarako aldaketa ikaragarri bat sortu arte. Baina ehiza ez da honen errudun bakarra, berotze globala eta kutsadurak ere honetan parte hartzen dute.

Orain ere animalia asko desagertzen ari dira. Gehienbat ehizaren erruz (atun gorria, elefante asiarra, tigrea, jaguarra, panda hartza ...) baina bizilekua kendu diegualako ere asko ari dira desagertzen (elurretako lehoinabarra, tigrea, carey dortoka...) eta poloetako animaliak desagertzen ari dira berotze globalaren erruz (hartz polarrak, Magallaneseko pinguinoak...).

Kutsadurak ere animalia asko desagerrarazi ditu. Noizbait ikusi izango duzue animalien bat plastiko batean harrapatuta.

Gizakiak eta animaliak antzekotasunak ditugu. Adibidez gizakien artean arrazismoa ikus dezakegu. Animaliekin ere horrela jokatzen dugula esan dezakegu. Ez ditugu berdin tratatzen zakur arraza desberdinak.

Adibidez, chiwawa bat oso ongi zaintzen dugu. Baina galgoak, berriz, lasterketak egitera behartzen ditugu.

Dena dela, beste gauza batengatik oso ezberdinak gara. Animalia gehienek bata bestea zaintzen dute eta ongi moldatzen dira.

Animaliaz aparte gure ingurumenean ikus ditzakegun paisaiak ere kutsatzen di-



Irakasleak lagunduta, ezkerretik eskubira: Uxue, Eneritz eta Paula. Iturria: Diario de Navarra.

tu; bere definizioak esaten duen bezala kutsadura “ingurumenean isurtzen diren substantzia kaltegarriengatik jasaten duen degradazioa” da.

Honen erruduna, noski, gizakia da (autoen eta fabriken keak, zaborra...).

Munduko itsasorik kutsatuenak Bangladesh, India, Indonesia, Pakistan, Malaysia, Tailandia, Filipinak... dira.

Ozeano Barean ikus dezakegun zaborrezko irla adibide garrantzitsu bat da. Zaborrezko irla esaten diote zaborrezko eremu honi, baina ez da hala. Zaborrezko irla ozeano gainean flotatzen dagoen plastiko eta hondakin multzoa da.

Hainbeste zabor pilatzaren arrazoiak pentsatzea zaila da, irla moduko horretako metro karratu bakoitzeko 5,1 kg plastiko daudela jakinda. Baina ongi pentsatzen badugu, konturatuko gara guk ere sorrazi dugula arazo hau. Uretara botatzen dugun zaborra itsasora joaten baita eta itsasontzietatik botatzen den zabor guztia ere hara joaten da.

Honek animaliei ere arazo larriak sortu dizkiete: itsasoko animaliek beraien bizilekua zikina izango dute eta hegaztiak plastikoa arrainekin nahasten dute. Horrelako gauzengatik animalia asko hiltzen dira.

Kutsadurak ere negutegi efektua sortu du. Negutegi efektuak geruza bat sor-

tzen du Lurrean. Horregatik, eguzkiaren izpiak Lurrean harrapatuta geratzen dira eta honek tenperatura igoera bat eragiten du. Horri Berotze globala deitzen zaio eta hori da poloak urtzearen erruduna. Jende askok klima aldaketa hau naturala dela esaten du (glaziazioa izan zen bezala).

Petrolioak ere kutsatzen du. Marea beltza leku askotan entzun izan da. Marea beltza petrolioak garraiatzen duen itsasontzi batetik petrolioak itsasora isurtzean gertatzen da. Petrolioak itsasoko urak baino dentsitate gutxiago duenez, uraren gainean zabaltzen da, animalia askoren bizilekua zapuzten du eta askoren bizia- rekin bukatzen du.

Ikus dezakegunez, arazo hau gizakiak urte askotan izan dituen akats askoren emaitza da eta horregatik hau konpontzea oso zaila izango da. Baina, arazo honen ondorioak gutxitzeko gauza asko egin ditzakegu: zaborra zaborrontzietara bota eta ez lurrera, birziklatu, autoa erabili ordez garraio publikoak edo bizikletak erabili, fabrika gutxiago eraiki, gutxiago ehizatu eta azkenik, zuhaitz gutxiago moztu eta gehiago landatu.

Natura gure ondarea da eta horregatik errespetatu egin behar dugu.

● Uxue, Paula eta Eneritz



Zer falta du Aranok?

Aranoko herritarrei galdezka ibili gara ea herriak zer duen faltan. Hona hemen zuetako batzuk emandako erantzunak:

- Igerilekua.
- Mediateka bat.
- Herriraino iristen den garraio publikoa.
- Persona helduen beharrian minimoak bermatzeko zerbitzu bat.
- Turismo aktiboa sustatzeko plan bat. Natur ingurua aprobetxatuz, espezie desberdinen basoa,... gisako proiektuak.
- Itsasoa.
- 1. sektorearekin jarraitzeko belaunaldi gaztea falta du.
- Eskola bat.
- Ximonek eskaintzen zuen zerbitzua. Haragia erosteko,...
- Frontoiko argiztapena, udazken-negu aldera gehiago aprobetxatzeko.
- Oinarrizko produktuen denda bat.
- Liburutegia.
- Herrian bertan eta herritarrentzat lan egin ahal izateko lantoki bat (koope-
ratiba modukoa).
- Mendi irteerak antolatzeko talde bat.
- Mendiko seinaleak. Ibilbideak markatzea.
- Eta nola ez,... frontoiarentzat estalpea.